

# ZAS!

## BULETINA

[www.zas.eus](http://www.zas.eus)

**abenduak 2023 diciembre**

Abenduak 18: Migratzaileen nazioarteko eguna / 18 de diciembre: día de la persona migrante



**ZAS!**

Zurumurruen | Red Vasca  
Aurkako Sarea | antiRumores

# EUSKARA, IMMIGRAZIOA, HEZKUNTZA ETA HAINBAT BESTE KONTU

Arrazoi ezberdinengatik euskara berak eta euskararen inguruko gaiak zentraltasun handia hartu dute. Hezkuntza legea gai korapilatsu bat da, eta gainera azken orduan legeak zuen hasierako kontsentsua apurtu egin da. Bestalde, euskalgintzako zenbait sektorek euskararen ezagutza tasan eta erabileran atzera egin delako kezka bizia du, besteak beste herri euskaldunetan ere immigrazioaren ezarrerak objektiboki atzerakada horretan eragiten duelako. Hurrengo hamarkadetan beharko diren immigrazio kopuruek -400.000 pertsonatik gora- euskararen egoeran ezinbesteko erresaka bat ekarriko dute. Bestalde, kalean daude Begirune fundazioak euskararen aurrean immigrazioak dituen jarreraren inguruko ikerketaren datuak. Beraz, euskarak aurretik ere zailtasunak izan ditu euskal gizartean euskaltzaleek nahiko luketen abiaduran garatu ez delako eta sozialki mugak dituelako, baina aurrerantzean erronkak areagotu egingo dira.

Honaino helduta, gurea bezalako erakunde batek, ZASek!, gai honen inguruan partehartze eta eragin zuzena ez duen arren, gero eta gehiago



**"Egoera honek ardura orokorra eskatzen du eta batez ere lankidetzak estua beronetan, euskara eta immigrazioaren alorrean, ari garen eragile guztion artean."**

dira euskara eta immigrazioaren inguruan eztabaida eta debateak egin behar direla proposatzen diotenak. Debatea erakunde barruan ere badago. Egoera honek ardura orokorra eskatzen du eta batez ere lankidetzak estua beronetan, euskara eta immigrazioaren alorrean, ari garen eragile guztion artean. Gure aldetik prest gaude eta eztabaidari ekingo diogu!

Preguntas

## — ZAS! Amelia Barquín

### Hezkuntza eta kulturartekotasuna: Zer uste duzu interpretatzen edo ondorioztatzen dutela pertsona gehienek bi kontzeptu horiek batera entzutean?

Normalean burura etortzen zaie atzeritik etorritako ikasleekiko hezkuntza. Eta "kulturartekotasuna" hitzak eramaten ditu pertsona asko pentsatzera gako nagusia dela jatorrizko kulturak egoki tratatzea. Baina askoz harago doa kontua. Beste herrialde batetik iritsitako ikasle horiek arreta behar dute hainbat arlotan: eskola berri batera iristea (ikasturteko edozein momentutan, edozein adinetan, askotariko eskola-ibilbideekin...); tokiko gizarteko hizkuntza edo hizkuntzak ikasi behar izatea; giro berri batera egokitu eta lagun berriak egin behar izatea; arazo ekonomikoak sufritzea; diskriminatua izatea azalaren koloreagatik, tokiko hizkuntzak ez jakiteagatik, beren egoera sozioekonomiko eskasarengatik...

### Faktore asko dira...

Argi dago halako egoerak ez direla denak batera eta neurri berean gertatzen beste herrialde batzuetatik etortzen diren ikaslearen artean, baina maiz ageri dira batzuk besteekin konbinatuta, eta, behar bezalako arretaz zaintzen ez badira, ondorio eskasak areagotzen dira. **Eskolak ikasle ondoan egon behar du, haien ezaugarri eta egoerak edozein izanik ere, ekitatearen ortzi-muga galdu gabe, abiapuntuko desberdinkeriak gainditzen laguntzeko.**

### Baina "kulturarteko hezkuntza" ez da soilik etorri berriekin soilik lotzen, ezta?

Ez, noski. Atzeririk ikasle gehiagorik etorriko ez

balitz ere, gure gizartea askotarikoa izango litzateke aurrerantzean ere. Badira hemen jaio direnak eta etxean eskolakoak ez diren hizkuntzetan mintzatzen direnak, orain arte zabalduena izan ez den erlijio-sinesmenen bat dutenak, kultura-ezaugarri beregainak dituztenak, gehiengoak ez dituen ezaugarri fisikoak dituztenak... Aniztasun hori aberasgarria da, baina, diskriminazioarako aitzakia izan ez dadin, halaxe bizi behar da eskolan eta gizartean ere.

### Eta beste ikasleak, "autoktonoen" seme-alabak? Zer esan haiei buruz?

Hori da beste dimentsio bat. **Kulturarteko hezkuntzak beste esanahi hau ere badauka: ikasle guztiek** (ez bakarrik atzeritar jatorrikoek edo ez bakarrik autoktonoek) **garatu behar dituzten gaitasun eta jarreraren multzoa, hain zuzen mundu askotariko batean positiboki bizitzeko, kultura-ezaugarri desberdinak dituzten pertsonekin batera bizitzeko.** Kooperazioaz ari gara, trebetasun komunikatiboak garatzeaz, gatazkak kudeatzeaz, pentsamendu kritikoaz, partaidetzaz, aniztasuna errespetatu eta estimatzeaz... Alegia, batez ere jarrera bat sustatzea da. Ez da beharrezkoa beste pertsona batzuen kulturez ikaragarri jakitea ere (nolanahi ere, ongi dator jakitea zer den garrantzitsua pertsona bakoitzaren bizitzan, izan "kulturala", izan bestelakoa). Oinarrizko sinpatia, enpatia, irekitasuna, errespetua, eta besteenganako interesa eta harreman positiboa agertzea da. Eta, batez ere, gogoratzea gauza gehiagok batzen gaituztela, banandu baino: oinarrizko premiak eta balioak (autoestimua, autonomia, aintzatespena, parte-hartzea, errespetua, tratua ona, afektua...) berberak dira pertsona guztiontzat.

### Gasteizko Alde Zaharreko Ramón Bajo ikastetxea aipatzen da maiz jardunbide egoki gisa: zer gomendatuko zenieke bere lorpenei jarraitzeko interesa duten gainerako ikastetxeei?

Nire auzoko ikastetxea da eta nire familiaren eskola ere izan da; asko estimatzen dut bere ibilbidea. Eskola pasatu da muturreko getizazio egoera batetik gaur egun denontzako eskola izatera: aniztasun sozial handia dago bertan, atzeritar jatorriko familiak zein autoktonoak daude. Gako batzuk aipatuko ditut. D ereduko ikastetxea izatera pasatu zen, eredu bakarrekoa,

non ume guztiek ikasten duten euskara, familian erabili ala ez. Eskola sentibera da desberdinkeria ekonomikoarekin eta desabantailan dauden ikasle eta familiekin, eta hori eskolako jardueran nabaritzen da. Familien elkarrekin oso aktiboa izan da beti eta oso ekimentsua, eta elkarrekin eta zuzendaritzaren eta irakasleen arteko kolaborazioa oso estua. Auzoarekin eta auzoko eragileekin harremana ere oso hurbila da eta aipatu behar da "Goian" aisialdirako egitasmo hezitzailea, ume eta gaztetxo guztiei jarduerak ludikoak, kirolekoak, artistikoak... eskaintzen dizkiena. Bestalde, eskola errebindikatzailea izan da administrazioaren aurrean eta askotan borrokatu behar izan du baldintza justuagoak lortzeko; familiak eta auzoa asko mobilizatu dira kalean eskolako baldintzak hobetzeko.

### Euskara inklusiorako tresna izan daiteke?

Ikasleentzat hala izan daiteke, bai. D ereduan ikasteak esan nahi du ikasle guztiek partekatuko dutela euskara, eta faktore kohesionatzailea izan daiteke. Ez ikasteak desabantailan kokatuko litzuke ikasle batzuk etorkizunari begira. Baina horrek esan nahi du ondo ikasi behar dutela, besteak beste euskara eskolan aritzeko tresna delako, eta hizkuntza ondo menperatzea eskolako bidean oso lagungarria izango delako. Arlo horretan aztertu behar da non dauden zailtasunak eta zein estrategiarekin egin aurre. Adibidez, euskaraz aisialdia eta kirola praktikatu ahal izatea, baldintza ekonomikoak oztopo izan gabe. Familiak beste faktore bat dira: haien parte-hartzea eta konplizitatea behar dugu umeak euskarara hobeto hurbiltzeko.

### Zeintzuk dira etorkizunari begira jarri beharreko erronka nagusiak, kulturarteko benetako hezkuntza lortzeko?

Batzuk aipatuko nituzke. **Segregazioa da gure gizarteak daukan erronka handi bat: ikasleak jatorriaren eta klasearen arabera eskola desberdinetan egotea ezin da justifikatu. Irakasleen formazioa beti da arreta behar duen alderdi bat: aniztasunaren trataeran, arlo didaktikoan, euskararen irakaskuntzan... Administrazioaren aldetik, desabantailan dauden ikasleengan jarri behar dira arreta eta baliabide gehiago. Gizarte mailan urratsak eman behar ditugu ulertzeko eta sentitzeko ume guztiak direla gizartean herritarrak, denon umeak, gure umeak.**





# ARGITU DITZAGUN ZALANTZAK

## Artículo

### Reflexión interna

Dakizuenez, ZAS! gizarte-eragile edo agenteek eta erakundeek osatutako sare bat da, gizartea sentsibilizatzeko estrategia bat garatzen duena, xenofobiari eta diskriminazioari aurre egiteko, bizikidetzak hobetzeko eta kultura-aniztasunaren indarra baliatzeko. Gainera, sarea estereotipoak eta aurreiritziak bertan behera botatzeko lanean ari da, epe luzerako estrategia batez, zirimiria modura, leun-leun eta trinko hedatu behar baitu gizartean. Esperientzia askoren bat-egite prozesu baten emaitza da ZAS! Esperientzia horietako batzuk udalen esparrutik sortu dira. Beste batzuk, gizarte-erakundeen eskutik. ZAS! sareak, beraz, izaera biak uztartzen ditu.

Zurumurraren aurkako jarduerak 2011. urtean hasi ziren, eta ZAS! sarea 2015ean aurkeztu zen Donostian; geroztik, eta 2018an elkarte gisa eratu zen arte, oso urte emankorrak izan ditu, elkar ezagutzeko eta konfiantzazko sareak osatuz joan baitira bazkideen artean. Eta sareen eta kideen arteko topaketan ondorioz, beharrak eta zalantzak identifikatu dira; izan ere, "Argitu ditzagun zalantzak"/"Resolver dudas" hau "Argitu ditzagun gaituzten zalantzak"/"Resolver las dudas que nos unen" bihurtzen da, eta horiek, ziurtasunak lortzea zaila dela agerian uzteaz gain, hausnarketa, autokritika eta gure kolektiboaren hazkundera sortzeko aukera ematen digute.

Zuzendaritza Batzordeak barne-hausnarketarako jardunaldi bat bultzatu nahi du, urtean zehar jaso dugun sentipenari erantzuna emateko. Jardunaldiaren helburua partaidetza-gune bat sortzea da gai hauen inguruko elkar-hausnarketa erraztuko duena: sarearen helburuen berrikuspena eta diskurtso berrien aurreko jardunaren eta ZAS!-en egituren finkapenaren inguruko barne-balorazioa egiten lagunduko diguna. Jardunaldiak gaur egun ZAS! zer den, nondik datorren eta nora doan galdetzerara eramango gaitu. Sarea osatzen duten erakunde eta elkarten ikuspuntuak bateratzeko aukera izango da, ZAS! gaur egungo gizartean zer leku hartzen duen eta zer lan egiten duen sakontzeko aukera emango digu, baita garenaz jabetu ere, errealia dena onartuz.

Ikus dezakezuen bezala, gogotsu eta indar handiz hasi dugu urtea, kolektiboki kulturarteko bizikidetzak sustatzen dituzten espazio sendoak eraikitzen jarraitzeko asmoarekin, arrazakeria eta xenofobia salatuz.

Como sabéis, ZAS! es una red de agentes sociales e institucionales que desarrolla una estrategia de sensibilización social para prevenir la discriminación y la xenofobia, mejorar la convivencia y aprovechar el potencial de la diversidad cultural. Además, contribuye a desmontar estereotipos y prejuicios, a modo de sirimiri, porque tiene que calar suave y densamente. ZAS! es el resultado de un proceso de convergencia de múltiples experiencias. Algunas han surgido en el ámbito municipal. Otras, en las entidades sociales. ZAS! mantiene por tanto una doble naturaleza.

Desde que comenzaron las distintas actividades antirumor en 2011 y se hizo la primera presentación de ZAS! como red en 2015 en la ciudad de Donostia, hasta 2018, momento en que se constituye como Asociación, han pasado unos años muy fructíferos en los que se han tejido redes de mutuo conocimiento y confianza entre sus miembros. Y a raíz de los encuentros entre redes y miembros, se han ido identificando necesidades y dudas, y es que este "Argitu ditzagun zalantzak" / "Resolvamos dudas", se convierte en un "Argitu ditzagun batzen gaituzten zalantzak" / "Resolvamos las

dudas que nos unen", las cuales, además de dejar patente que obtener certezas es difícil, nos permiten generar reflexión, autocritica y crecimiento de nuestro colectivo.

Desde la Junta Directiva se impulsa una jornada de reflexión interna, que pretende dar respuesta a un sentir que hemos ido recogiendo a lo largo del año. El objetivo de la jornada es tener un espacio participativo que nos ayude a hacer una reflexión y valoración interna acerca de los objetivos, líneas de trabajo, actuación ante los nuevos discursos y consolidación de la estructura de ZAS! Y que nos permita profundizar sobre qué es ZAS! hoy en día, de dónde viene y hacia dónde va, cómo conciliamos los puntos de vista de todas las asociaciones y entidades miembro, cómo se posiciona ZAS! y cuál es su labor en la sociedad actual, así como tomando consciencia de lo que somos, aceptando lo que es real.

Como podéis ver, comenzamos el año con ánimo y fuerza en seguir construyendo colectivamente espacios sólidos que nos permitan seguir proponiendo una convivencia real en clave intercultural, denunciando la discriminación racial y xenofobia existente.





# AGENDA BOLETIN

## 01

BILBAO

**Arrazakeriari eta kirolari buruzko mintegia // Seminario sobre racismo y deporte**

**Kirolak laguntzen al du arrazakeria eta intolerantzia arintzen? // ¿Contribuye el deporte a mitigar el racismo y la intolerancia?**

LEHEN SAIOA. 2024KO URTARRILAREN 10A, ASTEAZKENA, 18.30ean.

### Hitzaldi-solasaldia

Prentsa-aretoa, Bilbao Arena.



**SASKIBALOIA ETA ARRAZAKERIA: BEREIZI EZINEZKO HISTORIA BAT**  
Pablo Muñoz Rojo. Baloncesto y racismo: una historia indisoluble liburuaren egilea.

HITZALDIA. 18.30EAN



**Auri Lorena Bokosa**  
Saskibaloiko jokalaria ohia eta atleta olimpikoa.



**Alberto Edjogo Owono**  
Futboleko jokalaria ohia eta kirol-esataria.

BIGARREN SAIOA. 2024KO URTARRILAREN 24A, ASTEAZKENA, 18.30ean.

### Hitzaldi-solasaldia

Prentsa-aretoa, Bilbao Arena.



**ARRAZAKERIAREN KONTRAKO BORROKA KIROL-ARLOAN: EGUNCO EGOERA ETA GAINDITU GABEKO ERRONKAK**  
Ramón Llopis Goig. Universitat de València unibertsitateko soziologiako katedraduna.

HITZALDIA. 18.30EAN



**Julio Engonga**  
Futboleko jokalaria ohia. Kantabriako Futbol Federazioko Zuzendaritzaiko kidea.



**Asmae Ourdi**  
Soziologoa eta errugbiko jokalaria.

Informazio gehiago  
EDEX FUNDAZIOA  
Gonzalo@edex.es



## 02

BARAKALDO

**Aniztasunaren eskola // Escuela de la diversidad**

**Mugen esternalizazioa // Externalización de las fronteras**



### SANI LADAN

Nazioarteko Harremanetan graduatua eta Gizarte Hezitzailea, Sani Ladan Kulturarako hezitzailea da, eta kanpo-politikan, segurtasunean eta nazioarteko migrazioetan aditua. Nazioarteko analista gisa eta Ekialde Erdiarreko eta Erdialdeko eta Mendebaldeko Afrikarekin lotutako gaietan espezializatutako ikertzaile gisa lan egiten du. La luna está en Duala liburuaren egilea da, baita "Africa en 1 clic" podcastaren sortzailea ere.

Graduado en Relaciones Internacionales y Educador Social. Es formador intercultural y especialista en política exterior, seguridad y migraciones internacionales. Trabaja como analista internacional e investigador especializado en temas relacionados con Oriente Medio, África Central y Occidental. Es autor del libro "La luna está en Duala" y también creador del podcast "Africa en 1 clic".

URTARRILAK 16 ENERO // 18:30 - 20:00 // C.C.  
CLARA CAMPOAMOR Z.Z. BARAKALDO

Izena emateak // Inscripciones:  
amekadi@gmail.com - 639 362 441

ANTOLATZEN DU ORGANIZA

Gizarte Kohesio eta Aniztasunaren Kudeaketa Arloa // Área de Cohesión Social y Gestión de la Diversidad



## 03

BILBAO

### "Hizkuntza eta komunikazioa gizartea eraldatzeko tresna gisa"

**"El lenguaje y la comunicación como herramientas para la transformación"**

OTSAILAK 20 FEBRERO  
18:00 - 20:00

Bilborock  
(Mesedeetako Kaia, 1)



**DESIRÉE BELA-LOBEDDE**  
Idazlea eta hizlaria  
Escriptora y conferenciante

IZEN-EMATEAK / INSCRIPCIONES  
amekadi@gmail.com / 662 425 662



## 04

BILBAO

**"AHANZTURAREN AURKAKO ERREZETAK. Palestinako emakume errefuxiatuekin Libanon sukaldatzen" errezetak liburuaren aurkezpena // Presentación del recetario "RECETAS CONTRA EL OLVIDO. Cocinando con mujeres refugiadas de Palestina en Líbano"**



AZAROAK 27 ENERO // 12:00 // BBK KUNA (SALA BANBARA).  
URAZURRUTIA KALEA, 3 IBAIONDO.



Izena emateak // Inscripciones:  
<https://forms.office.com/e/JF5mJYA8>

## IKUSI | MIRA

BASAURI

Zurrumurruren Aurkako Urteko Topaketa // Encuentro Anual Antirumores

### ZURRUMURRUEN AURKAKO URTEKO TOPAKETA

ENCUENTRO ANUAL ANTIRUMORES

Ospakizun eta sorkuntza kolektiborako gunea

Un espacio de celebración y creación colectiva

Taberna Nagusia (San Miguel)

Urtarrilak 20 de enero  
11:00-13:30

DINAMIZATZAILAK / DINAMIZADORAS

Ixiar Garcia eta Maite Darceles (HOBEST)

CATERING

Zehazteke/Por determinar

ITXIERA / CIERRE

Laura Penagos

Haurrak ongi etorriak dira. Elorrezkotan abiatu gaitzazu. Niños y niñas son bienvenidos. Si van a asistir, avisaros.

Izena emateak // Inscripciones:

amekadi@gmail.com - 606 050 662

## 05

VITORIA-GASTEIZ

Aniztasunaren eskola // Escuela de la diversidad

**Ikuspegi dekoloniala, komunitate musulmana eta genero-ikuspegi // Visión decolonial, comunidad musulmana y perspectiva de género**



### CHAIMA BOUKHARSA

Arabista eta islamologoa, aktibista, komunikatzailea eta hizlaria. Kultura-aniztasunari, feminismoari, dekolonialtasunari eta islamofobiari buruzko formakuntzak ematen ditu. Afrocollectiva-ren sortzaileetako bat, komunikazio eta dekonstrukzio komunikabidea.

Arabista e islamóloga, activista, comunicadora y conferenciante. Imparte formaciones sobre diversidad cultural, feminismos, decolonialidad e islamofobia. Cofundadora de Afrocollectiva, medio de comunicación y deconstrucción.

OTSAILAK 13 FEBRERO // 18:30 - 20:00 // C.C.  
CLARA CAMPOAMOR Z.Z. BARAKALDO

Izena emateak // Inscripciones:  
amekadi@gmail.com - 639 362 441

ANTOLATZEN DU ORGANIZA

Gizarte Kohesio eta Aniztasunaren Kudeaketa Arloa // Área de Cohesión Social y Gestión de la Diversidad



## Babeslea // Patrocina



## Zaskideak

